

Hirugarren pertsona duala

Petra Kolmančič

drugebesede **beste**hitzak
||| | | || | ||| | |



Itzultzailea: Garazi Ugalde Pikabea

Co-funded by the
Creative Europe Programme
of the European Union



Hirugarren pertsona duala poema bilduma 2017 amaieran argitaratu zuen Mariborreko Pivec argitaletxeak. An Fál Carrach herri gaelikoan (Donegal, Irlanda) sortua izan zen zati batean, *Other Words* nazioarteko egonaldi programaren barruan. Programa hori Europar Batasuneko *Creative Europe* erakundearen kulturako azpiprogramak babesten du, eta Donostia Kulturak eta X-OP Arte Garaikideko Elkarteak koordinatzen dute Euskal Herrian eta Eslovenian, hurrenez hurren.

Egileak eskerrak eman nahi dizkie, batetik, Irlandan hartu zuten Foras na Gaeilge erakundeari, eta bertako Anni Ní Bhroin eta Orlaghu Ní Raghallaigh kideei; eta, bestetik, X-OP Arte Garaikideko Elkarteke Nataša Zidarič eta Peter Tomaž Dobrila kolaboratzaileei.

METASTASIA

Elkar laztantzen jarraitzen dute biek,
elkarri atera nahian
zer diren, zer izan litezkeen, zer maite duten.
Gero elkarri heldu diote, elkarrengan murgildu dira, elkar erantzi dute.
Gero elkarri eraso diote,
zer diren, zer izan litezkeen, zer maite duten baino zerbait gehiago ikasteko.

Zuk ebaki duzu lehenik epidermisa.
Ikusi duzu baduzula zer andana larru azpian,
eta hezur guztiak antola daitezkeela
ausazko konbinazio berrietan.
Hark egin du hurrengo ebakia,
eta loratu zaio mami gorria, isuri zaio odol bizia.
Eztiki ukitu ditu zaldar zornatuak, koskorrak, zarakarrak
eta azken
hurbiltasun
fase honen
gainerako sintoma guztiak.

ANFIBIOAK

Anfibioen modukoak gara; batzuetan kanpoan, lur lehorrean,
batzuetan murgildurik nor bere barne zingiretan.

Seguru sentitzen gara gure zingira lohietan.
Haietan hazten gara.

Sentikorrak gara ukipenarekiko, noli me tangere;
eta hitzekiko eta begiradekiko, noli me legere, noli me videre.

Gure odola beroa da batzuetan, izotzezko batzuetan, urtsu bestetzueta.
Mintzak ditugu betazalen azpian, eta betazal pare bat gehigarri,

begiak tinko ixteko, bertikalean nahiz horizontalean.
Maitasuna egiten dugu elkarri begiratu gabe,

elkarri atzetik erasoz, gure desirak eta irudipenak
atzemateko, birmoldatzeko, amesteko.

Ondoren alde egiten dugu, geure bideari lotu, eraso digun horrek
lehenago edo geroago tristeziaren kiratsa jariatuko baitu,

eta hori eramangaitza, jasanezina da.
Anfibioen modukoak gara; antagonismo buru-hankarik gabea.